

## **ZUMAIAKO UDALA**

## **GIPUZKOAKO PROBINTZIA**

### **2005EKO IRAILAREN HOGEITABEDERATZIAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.-**

Zumaiako hirian, bi mila eta bosgarren urteko irailaren hogeitabederatzian, arratsaldeko zortzietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da ohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta behar bezala deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren korporazio kideak etorri ziren:

#### **LEHENDAKARITZA.-**

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

#### **ZINEGOTZIAK.-**

Asier ESNAL ALBIZU jauna.

Manuel ZUBIA ARTABE jauna.

Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.

Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.

Andoni ETXANIZ OSA jauna.

Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA jauna.

Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.

Abel YEREGUI SASIAIN jauna.

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.

Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.

Cristina FORCADA UNANUE andrea.

#### **IDAZKARIA.-**

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

## **1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA (2005.05.26; 2005.07.21)**

Alkate-Lehendakari andreak bilera eratutzat eman ondoren, korporazio kideren batek onarpenera aurkezturiko akteri buruzko oharpenik egin nahi lukeen galdetzen du.

Oharpenik adierazten ez denez, bozketa eginik, korporazio kideek aho batez onartzen dituzte 2005-05-26 eta 2005-07-21eko batzarraldietako aktak.

## **2.- GERONTOLOGI ZENTROA ERAIKITZEKO GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIARI DOANEKO ZESIOAN 2. SEKTOREKO (PUNTANUETA) GIZARTE EKIPAMENDURAKO PARTZELA LAGATZEA.**

Alkateak 2. Sektoreko (Puntanueta) Plan Partzialean, gizarte ekipamenduak helburu dituen lur sail bat aurrikusten dela dio.

Kontuan izanik Zumaian egoitzan sartzeko "itxaron zerrenda" daukagula eta ekipamendu hauen eskuduntza Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola, Gizarte Politikarako sailarekin hainbait bilera egin ditugu gaur egungo egoera hobetzearen alde.

Zumaiako udalerrriaren ezaugarrien arabera 70-72 plazako egoitza bat dagokigu eta Udalaren jabetzako den Puntanuetako lur sail horretan eraikiko litzateke.

Hirigintz ikuspegitik begiraturik geure kezkak izan ditugu Udalaren jabetzako partzelak dituen 600 m<sup>2</sup>etan ekipamendua sartuko litzatekeen.

Hori horrela Xehetasun estudioa onartu genuen zeinaren bidez alineazio eta rasanteak finkatzen diren.

Zailtasunak zailtasun Foru Aldundiak oneritzia eman digu eta baldin eta lurzoru gehiago beharko balitzateke agian egitasmoaren aldaketa egin beharko genuke.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 12 (5 E.A.J, 2 IZUSTARRI, 2 E.A, 2 PSOE)  
Aldeko botuak: 12 ( 5 EAJ, 2 EA, 2 IZUSTARRI, 2 PSOE eta 1  
EB-BERDEAK).

7/1985eko ELOL –ko 47,2 ñ) art-ak eskatzen duen gehiengoa  
beteaz

### ERABAKI DA:

**LEHENENGOA:** Zumaiako Udalaren jabetzakoa den eta Azpeitiako Jabetza Erregistroan 1.812. Tomoan, Zumaiako 156.Liburuan, 47. Folioan, 8.867 finka, lehenengo inskripzioa, oharpena esleipena, gisa erregistratua dagoen 600 m<sup>2</sup>-ko lur saila Gipuzkoako Foru Aldundiari dohainik zesioan ematea, gerontologi zentroa eraikitzeko.

Zesioan ematen den lur sailaren xedea eta helburua zehatz mehatz bete dadin, zesio hau baldintza erresolutoriora dago mugatua, beraz, baldintza hau beteko ez balitz, automatikoki lur sail hau Udalaren izenean inskribatuko litzateke, errebertsio eskubideaz.

**BIGARRENGOA:** Jendaurreko agerraldi epe bat zabaltzen da hamabost eguneko epez, Udaletxeko iragarki ohoan iragarkia azalduaz, iradokizunak aurkez daitezten eta Gorporazioak erabaki ditzan. Oharpenik aurkeztuko ez balitz, akordioak behin betiko izaera jasoko luke.

**HIRUGARRENGOA:** Eskumena duen Foru Aldundiko organuari akordio honen berri jakinaraztea.

**LAUGARRENGOA:** Alkate Lehendakariari jaunari gaitasuna eman zesioko eskritura publikoa izenpetu dezan eta akordio hau eragikor izan dadin gainerako agiriak.

### **3.- 2006. EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

Hazienda Batzordeburuak, Asier Esnal zinegotziak 2006ko ekitaldirako Ordenantza Fiskalen, proposamenaren berri ematen du. Nagusiki zera aipatzen duelarik:

Orohar proposatzen den igoera, KPI-arena da.

Tasetan, Zabor bilketa eta ur honrnidura zerbitzuan, zerbitzuaren kostea estaltze aldera, proposatzen den igoera % 4,5-ekoa da.

Zergetan, OHZ-ri dagokionean zera proposatzen da gipuzkoako batz bestekora iristea tipoa igoaz.

Gipuzkoako mediak kalkulatzeko erabilitako erizpide ezberdinen berri ematen du eta kopuruak. Batz besteko sinpleak zer ematen duen ( 0,1690 ) eta batzbesteko ponderatuak ( 0,1878 ). Herri txikiek hiri izaerako OHZ tipoa bajuagoa daukate eta media jaitsi egiten dute; aldiz, landa izaerako OHZ tipoa altuagoa daukate, era horretan orekatzen dutelarik OHZ.

Batz besteko ponderatua guk aplikatzen dugun tipoa baino bi puntu altuagoa da.

Zera adierazten du Zumaiako herriarekin alderatzeko ezaugarri beretsuak dituzten herriekin osatzen dugun taldearekin alderaketa eginez gero, hau da, 5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko herriekin, kostakoak direnak, bailarakoak, ateratzen den batzbesteko sinplea 0,1906 sinplea eta ponderatua 0,1904 , guk daukagun tipotik oso urruti gelditzen da. Beraz igoera bapatean egin beharrean denboran zehar egitea proposatzen da.

Gainerantzean esan bezala Ordenantzetan planteatzen den igoera KPI-koa da.

Ondoren proposamenaren berri ematen du.

#### **2006. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

Gipuzkoako abuztua bitarteko KPIa %2,8koa izan da. Igoera hau proposatzen da orokorrean tasa gutzientzako, ur hornidura zerbitzuan eta zabor bilketan izan ezik. Hauetan, beste urteetan bezala, zerbitzuaren koste zuzena estaltzea izango da helburua. Zergei dagokienez, igoera handiagoa proposatzen da ondasun higiezinaren gaineko zergan Gipuzkoako batz besteko tipora iristeko

#### **HIRI ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA.**

2005. urtean aplikatu diren tipoak dira: 0,1676 etxebizitzetarako eta 0,3695 industrialdetako. (Gutx.:0,04 - Gehien.:0,4 orokorra eta 0,6 industrirako). Gipuzkoako batz besteko tipoak dira: 0,1878 etxebizitzetan eta 0,3856 industrialdeetan.

PROPOSAMENA: Tipoak igotzea Gipuzkoako batz bestekora iristeko.

Karga tasa orokorra 0,1760.

Industrirako karga tasa 0,39.

Kuota osoaren %50eko hobaria mantentzen da babes ofizialeko etxebizitza berrietarako hiru urteko epean eta baita ere famili ugarien hobariak iaz ezarritako eskala eta baldintza berdinekin. Famili ugarietan balio katastralaren muga 122.500 eurotara igotzen da.

#### **- LANDA ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA.**

Azken hamahiru urteetan karga tasa 0,6ean mantendu da. (Gutx.:0,3 – Gehien.: 1,1)

Proposamena: Karga tasa, 0,63ra igotzea.

#### **- TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA.**

1,8751ko koefizientea aplikatzen da gutxieneko kuotei.  
(Gehien.: Gutxieneko kuoten 2,2a)

Proposamena: urtetik urterako KPIa igotzea.

#### **- EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGA.**

1,8231ko koefizientea aplikatzen da gutxieneko kuotei. (Gehien.:2,2).

Proposamena: Koefizientea urtetik urterako KPIan igotzea, kokapen indizea lean mantentzea eta ponderazio koefizientea ere mantentzea, zergadunaren eragiketa bolumenaren arabera:

<b>Eragiketa Bolumena</b>	<b>Koef.</b>
<b>2.000.000,00 eta 6.000.000,00 euro bitartean</b>	<b>1,20</b>
<b>6.000.000,01 eta 10.000.000,00 euro bitartean</b>	<b>1,22</b>
<b>10.000.000,01 eta 50.000.000,00 euro bitartean</b>	<b>1,24</b>
<b>50.000.000,01 eta 100.000.000,00 euro bitartean</b>	<b>1,27</b>
<b>100.000.000,00 euro baino gehiago</b>	<b>1,30</b>
<b>Eragiketa bolumenik gabe</b>	<b>1,25</b>

#### **- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA.**

%5eko karga tasa aplikatzen da. (Gutx.:0% - Gehien.:5%)

Proposamena: Karga tasa mantentzea eta ondorengo hobariak:

1.- Promozio publikoko edo erakunde publikoetatik bultzatutako Babes Ofizialeko etxebizitzentzako %50eko hobaria.

2.- %90aren hobaria edukiko dute ezinduen irisgarritasun baldintzak eta bizitzeko egokitasun baldintzak hobetzeko eraikinek, instalazioek eta obrek. Hobari hori, ezinduen irisgarritasun baldintzak eta bizitzeko egokitasun baldintzak hobetuko dituen obraren aurrekontu-zatiari aplikatuko zaio.

3.- 15/1989 Faren 5. Artikuluaren arabera, ordenantza fiskalek zerga kuotaren %95erainoko hobaria arautu ahal izango dute interes berezikoak edo udal erabilerakoak deklaraturako eraikuntzen, instalazioen edo obraren alde, horretarako arrazoi sozialak, kulturalak, historiko-artistikoak edo enplegua bultzatzeko arrazoiak daudenean. Artikulu honek esaten duena kontuan hartuta, fatxadak konpontzeko egiten diren obrek, zerga honetan %95eko hobaria dute.

2. hobaria beste modu batean idazten da:

2.- %90ko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta bizitzeko egokitasun baldintzak hobetzen dituztenean.

Hobari honen aplikazioak arau hauek beteko ditu:

- Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezinduen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

- Obren helburua eraikina berritzea baldin bada, eta aurrekontuan ezinduen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain beste partida batzuk ere jasotzen badira, hobari eskubidea duten partidak bakarrik hartuko dira kontuan kuota zehazterakoan. Horretarako, nahitaezkoa izango da, aurkezten den aurrekontuak ondo bereiztea helburu hori duten obren zatia.

#### **- HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA.**

Proposamena:

Tipoa %10ean mantentzea.

Mantentzen da ere kuotaren %50ko hobaria, lurren eskualdaketetan eta jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eskualdaketa edo eraketatan, beti ere kostu gabeko eraketa edo eskualdaketak badira eta ondorengo ahaideen, adoptatuen, ezkontideen, aurreko ahaideen edo adoptatzaileen alde egiten badira heriotza dela-eta.

#### **- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK TASAK.**

##### **\* Zabor Bilketa**

Proposamena: zerbitzuaren kostea estaltzea %4,5ko igoerarekin.

##### **\* Dokumentuak ematea**

Proposamena: KPI aren igoera eta fotokopien prezioak mantentzea.

##### **\* Hirigintz-lizentziak luzatze zerbitzuagatiko tasa.**

Proposamena: Tasa hau KPIan igotzea.

##### **\* Establezimenduen irekitze lizentziak emateagatiko tasa.**

Proposamena: Tasa hau KPIan igotzea.

Tarifak aplikatzeko arauak:

Establezimenduaren titularitate eta jardueraren titularitate aldaketek zabaltze-tarifaren %50 ordainduko dute, baldin eta Jarduera Gogaikarrien, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuetarako baimenen Espedientea izapidetu beharrik ez badute, hori egin behar izanez gero, %100 ordaindu beharko dute.

##### **\* Udal hilerrian ematen diren zerbitzuen tasak.**

Proposamena: Tasa hau %KPIan igotzea.

##### **\* Auto taxi eta gaineko akurako ibilgailuen lizentzi eta baimen administratiboak emateagatiko tasa.**

Proposamena: Tasa hau KPIan igotzea.

##### **\* Jarduera nekagarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen lizentziak tramitatzea**

Proposamena:

Aginduzko iragarkiak argitaratzeak sortutako gastuak dagokien zenbatekoagatik fakturatuko dira.

##### **\* Ur-hornidura zerbitzua.**

Proposamena: Kostea estaltzea prezioak bataz beste %4,5ean igotzen.

Ur-hartzeak KPIko igoera izango dute.

\* **Polikiroldegia, frontoia eta itsaskiroldegia.**

Proposamena: Prezioak KPIan igotzea

\* **Etxez-etxeko laguntza zerbitzua**

Proposamena: Prezioak KPIan igotzea

\* **San Juan egoitza**

Proposamena: Prezioak KPIan igotzea

\* **Erabilera anitzeko apartamentuak**

Proposamena: Prezioak KPIan igotzea

\* **Liburutegia**

Proposamena: Prezioak mantentzea

\* **Ludoteka**

Proposamena:

Urteko kuota: 20 euro (2006/07 kurtsoa)

\* **Udalekuak**

Proposamena:

Hilabeteko 60 euro.

15 eguneko 35 euro.

\* **Foronda kultur etxea.**

Argitalpenak:

Historia liburua 19,00 euro

Hitzaldi liburua 6,50 euro

Argazki liburua 16,00 euro

Pribilejio rodatua cda 2 euro

Zumaiako bideoa 10 euro

Ibilbide liburuxka 1 euro

Hitzaldi aretoaren erabilpena:

- Egun erdia: 41,00 euro

- Egun osoa: 72,00 euro

- Ezkontzak: 33,00 euro

Antzerki sarrerak:

Profesionala 10 euro

Amateurra 3,50 euro

Haurrena 2,00 euro

Festetako oholtza alokatzea:

Alokairua

317 euro

Eguneko 63 euro

Bizikleta alokairua

Ordu bat euro bat

Egun osoa 3 euro

**\* Musika patronatoa**

Proposamena: Prezioak KPIan igotzea

**\* Bidaiarien itsasuntzi garraio zerbitzua:**

Proposamena: Prezioak mantentzea

**- JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK TASAK.**

**\* Hesiak, aldarnioak, zutabe eta eustagak.**

Proposamena: KPIko igoera aplikatzea.

**\* Badoak.**

Proposamena: KPIko igoera aplikatzea.

**\* Erakuslehoiak.**

Proposamena: KPIko igoera aplikatzea.

**\* Erretenak eta zangak irekitzea.**

Proposamena: KPIko igoera aplikatzea.

**\* Udal bide publikoen lur, lurrazpi edo lurgainaren erabilera pribatibo edo probetxamendu berezia.**

Proposamena: KPIko igoera orokorra aplikatzea.

**\* Feria eta herri jaietako postuak.**

Proposamena: KPIko igoera aplikatzea.

**Ibilgailuen aparkaldi mugatua:**

Proposamena: Prezioak mantentzea.

**\* Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldeko udal bide publikoen lur, lurrazpi edo lurgainaren erabilera pribatibo edo probetxamendu berezia.**

Prezioa, aipatutako enpresek udal barrutian urtean euskatzen duten fakturaziotik datozen sarrera gordinen % 1,5ekoa izango da.

Jarraian 2.005 urterako Ordenantza Fiskalen proposamenari **IZUSTARRI**-k aurkeztutako **EMENDAKINA** irakurtzen da.



## **2006rako-ORDENANTZA FISKALEI ENMENDAKINA**

- Gure proposamena da zerga, tasa eta prezio publiko guztietan KPla igotzea, azken bi urteotan esan dugun bezala, betiere, kontuan hartuta teknikoek esaten duten bezala ez garela iristen Gipuzkoako batez bestekora. Batez besteko horretara iritsiko bagina, izoztea izango litzateke egokiena. Arrazoiak honako hauek dira:
  1. Gure ustez, hain zuzen ere, KPla baino gehiago igo nahi diren zerga edo asetatik, bi behintzat (uraren tasa eta hiri-ondasun higiezinaren gaineko zerga) lehen-mailako ondasunak zergapetzen dituzte (ura eta etxebizitza) eta ondasun horiek behar-beharrezkoak dira bizitzeko.
  2. Gainera, KPlankostu guztiak sartuta daude, denok dakigun bezala prezioen batez besteko bat delako. Beraz, etxebizitza, ura eta zaborra ere KPI horretan sartuta daude.
  3. Miguel Lazpiur, Confebask-eko lehendakari berriak esandakoaren arabera, pasa den astebukaeran 2000rako Confebask-ek proposatuko duen soldaten igoera ez da izango inolaz ere KPla baino gehiagokoa. Soldadak ez badira igotzen, KPla baino gehiago, zergatik tasak eta zergak bai?
- **Hiri-ondasun gaineko zerga:**
  1. Aurreko proposamena kontuan hartuta, eskatzen dugu tipoak %5etik %2,8ra jaistea.
  2. Ez dugu zalantzan jartzen teknikariek esandakoa, hau da, batez bestekoaren azpitik gaudela, baina bai uste dugu tipoa bakarrik hartu beharrean konparaketak egiteko baliokidetasunak harlu beharko liratekeela eta etxebizitza bakoitzeko batez bestekoa atera.
  3. Aurreko urteetan bezala, etxebizitza hutsetan penalizazioak edo tipoak igotzea eskatzen dugu. Horri lotuta, udal batzuk Eusko Jaurlaritzako Bizigune programan sartu dira etxebizitzak alokairuan ipini ahal izateko.
- **Ura eta zaborra:**
  1. Hasieran esan dugun bezala, eskatzen dugu tipoak %0,5etik %2,8ra jaistea.
  2. Etxebizitzaren esan dugun bezala, ura ere lehen-mailako ondasuna da (oraindik ere maila handiagokoa) eta gainera ondasun urria da.
  3. Urarekin ez da batez bestekorik aipatzen. Ikusi beharko litzateke zenbat kobratzen den metro kubikoko eta beste udalekin konparaketak egin, zeren azken urteotan igoera nabarmenak egon dira.
  4. Ura, ondasun eskasa izanik, udalak subentzioak jarri ditzake orokorrean urgutxiago gastatzeko, adibidez, Beasaingo udalak egin zuen bezala.

Ez dugu uste asko eskatzea denik igoera KPla izatea, kontuan hartuta Udalaren egoera ekonomikoa oso ona dela eta horregatik ez litzatekeela "kiebra--rik egongo.

Zumaian, 2005eko irailaren 28an.

## IZUSTARRI

**EAJ**-ak zera dio urteoro eztabaida edo jardun berdintsuetan ibiltzen garela. Ados ur hornidura eta etxebizitza oinarritzko ondasunak direla.

Europar Batasuneko 2000. urteko 60 direktibaren arabera, uraren politika iraunkortasuna eta kalitatezko urarekin egon behar du lotua. Honek suposatzen du ura erabiltzen duenak eta ondorioz, zikintzen duenak garbia isuri behar duela eta garbitze horren kostua ordaindu behar duela.

Pertsonako eta eguneko 50 litro ur gastatu beharko genuke hori da ideala. Horren kostua 1.500 pezeta ingurukoa izango litzatekeelarik. Baina gu ez gara horrekin konformatzen eta 120 litro ur gastatzen dugu pertsonako egunean eta hori 3.700 pezta kostatzen zaigu.

Demagogia alde batetara utzita, diru kopuru hori zorionez, ia edozeinek asumitu dezake.

Etxebizitza ere lehen mailako behar bat da. Proposatzen dugun igoera legearen barruan dago. Ez da popularra, baina bai zentzuzkoa. Erantzukizuna gurea da.

Ekonomikoki egoera onean gaudela, bai, baina sailu garelako eta egoera on hori mantentzen jarraitzen dugulako.

Igoerari uko egingo bagenio aldea elikatuko luke eta geroz eta zailagoa izango litzaiguke besteen mailara iristen.

Gainera ez dezagun ahaztu, KPI-a zenbait osagaien prezioen batz besteko bat dela.

Adibideak jartzen dira zein herrietan ordaintzen den gehiago uraren kontzeptuan.

Eztabaida sortzen da IZUSTARRI eta EAJ-koen artean ondasun higiezin gaineko zergari dagokionean, homogeneitatearen aldera IZUSTARRIK dio etxebizitzako, tipo berdina izan beharko lukeela, EAJ-k erantzuten dio, ezin daitezkeela alderatu adibidez Zumaia eta Hondarribiko etxe bat edo azalera ezberdineko etxeak, guk bestalde kapazitate fiskal bajuagoa daukagu beste batzuk baino, berdintasuna balore absolutoetan legoke.

PSOE, emendakinarekin ados azaltzen da. Baina luzarora kaltegarria dela aurrakusten dute. Une honetan egoera ekonomiko onean gaudelako proposatu daiteke, aldiz egoera okerragoa balitz, igoera planteatzea traumatikoagoa gertatuko zen. Etxebizitza hutsen gaia, Diputazioak berak ere baztertu egin du.

Bestalde 2006ari begira Mankomunitateek zein kontu aurkezpen egin duten galdetzen du. Izan ere, Diputazioak zabor organikoaren konpostajearen kostuak Mankomunitateeri bereganatzeko eskatzen die, gai hau beraien eskuduntzako delako, baina Mankomunitateek ez dute beren gain hartu nahi. Eta hor dago tira bira.

EAJ-k erantzuten du oraindik ez dutela zentzu horretan ezertxo ere aurkeztu. Egiaren alde, birziklatzea eta konostajeari buruzko idatzi bat igorri digute, baina besterik gabe.

Gure proposamena egitatezko kostuak estaltzearen bidetik doa, ezustekoak ez ditugu kontuan hartzen. Tsak koste erreala estali behar du.

**EZKER BATUA BERDEAK** Taldeko bozemaileak KPI-aren igoera besterik ez dutela onartuko dio.

IZUSTARRI-ren iritzian beste Udaletxeetan gehiago kobratzen dela eta Zumaiak ere bide berbera jarraitu behar duela, ez zaio arrazoia denik iruditzen. Benetan esanguratsua dena, orokorrean globalki begiratuta, Zumaiak diru horren beharrik baduen da. Besteek egiten dutelako guk egiten dugu ez da justifikazioa.

Ur horniduraren gaian badago maxima bat "el que consume (contamina) paga ", alderantziz, kutsagarria ez den kontsumoa egiten duena saritu egin behar litzateke.

Zentzu honetan jendea kontzientziazten saiatu behar gara. Inzentibo txiki horiekin, gutxirekin asko lortu daiteke. Hauek dira ideiak.

EAJ- ak dio uraren kostuarena ez dela beraien asmakizun bat, baizik Europako Direktibak dioena. Hitzez hitz textuak dioena irakurtzen du.

Ez bada urteoro KPI-aren gaineko igoerarik planteatzen, aldea handitu egingo litzateke eta gero dena kolpean igo beharko genuke.

Udala egoera ekonomiko onean badago, gestioan zuhurrak izan garelako izan da. Eta beti ere oikoak ez diren aparteko sarrerak izan ditugulako.

IZUSTARRIk dio, emendakina aurkeztearen arrazoia, langileen soldatak KPI-a baino gehiago ez direla igoko dela batetik eta bestetik, etxebizitza eta ura lehen erabilera eta premiazko ondasunak direlako.

Jarraian 2.006 urterako Ordenantza Fiskalen proposamenari **IZUSTARRIK**-k aurkeztutako **EMENDAKINA BOZKATZEN DA.**

Aldeko botuak: 3 ( 2 IZUSTARRI ,1 EB-BERDEAK)

Aurkako botuak : 7 ( 5 EAJ, 2 EA )

Abstentzioak: 1 PSOE.

**ERABAKI DA:**

2.006 urterako Ordenantza Fiskalen proposamenari **IZUSTARRI**-k aurkeztutako **EMENDAKINA ez onartzea.**

Ondoren **2006KO EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALEN PROPOSAMENAREN OSOTASUNA** bozkatzen da:

Aldeko botuak: 7 ( 5 EAJ, 2 EA )  
Aurkako botuak : 3 ( 2 IZUSTARRI ,1 EB-BERDEAK)  
Abstentzioak: 1 PSOE.

ERABAKI DA:

1.- 2.006-ko ekitaldirako Hazienda Batzordeak luzaturiko Ordenantza Fiskalen aldaketa proposamena behin behingo izaeraz onartzea.

2.- Jende aurreko 30 eguneko epe bat irekitzea iragarkia GAO-an argitaratzen denetik zenbatzen hasita, erreklamazio eta oharpenak aurkeztu ahal daitezen helburuaz; aurkeztuko balira gorporazioak ebatzi beharko lituzkeelarik, aurkeztuko ez balira behin betikoz onartutzat emango dira.

#### **4.- ESKARI – GALDERAK.-**

Alkate Lehendakariak zinegotziren batek eskari galderarik egin nahi lukeen galdetzen du.

IZUSTARRI-ko bozemaileak eskaera bat luzatzen du: Gasteizko legebiltzar eta gobernuan lan egiteko erak aldatu direla kontuan izanik, eskatzen dugu hemen ere udal mailan oposizioari Gobernu Batzordean partaidetza ezagutzea. Haize berriek udala ere astindu dezaten. Zentzuzkoa eta bidezkoa ikusten dugu Gobernu Batzordean ere herri guztiak hitza eduki dezan.

EAJ-k erantzuten du, Gasteizen eta hemen, Zumaiako Udalean, egoera ez dela berdina. Gasteizen gobernua minorian dago, talde politiko gehiagoren beharrean dago.

Bestalde Zumaiako kasura itzuliaz, Gobernu Batzordean erabakiak hartzen ditugun gaiari buruz, aurrez beti Batzorde berriemaileek beren iritzia azaldu dute eta zentzu horretan alderdi guztien ezagutzakoak dira eta talde politiko ezberdinek zer esana izan dute.

IZUSTARRIK bi aipamen egiten ditu:

1.- Likidazioa behin betiko izaeraz onartu zela jendaurreko agerraldi epea igaro aurretik.

2.- OTA-ko prezioak Ordenantzaren testu osoa argitaratu aurretik aplikatu zirela.

Idazkariak erantzuten du lehenengo puntuari dagokionean jendaurreko agerraldi epeak bi fase ezberdin dituela argitaraturiko iragarkian azaltzen zen bezala. 15 egun espedientea aztertzeke eta zortzi oharpenak aurkezteke. Espedientea aztertzeke epea iraganik zegoen, aldiz oharpenak aurkeztekoa ez, baina kontuan izanik oharpena aurkezteko aurrez espedientea aztertu behar dela eta inor ez zela etorri espedientea aztertzerako oharpenak aurkezteko ezinezko zen.

Bigarren gaiari dagokionez zera dio Ordenantzaren argitalpen dataren egunaz ez dela oroitzen eta balitekeela beraiek dioten eran izatea, baina aztertu beharko duela.

PSOE-k dio, Ordenantza fiskalak eztabaidatu behar ziren Hazienda Batzordeko bileraren deialdia ez zutela nahiko aurrerapenez jaso.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andreak bilera amaitutzat ematen du, gaueko bederatziak eta hamar direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK O.E

IDAZKARIAK